

**AZKOITIKO UDALERRIAN  
INDARKERIA SEXISTA  
KASUEN AURREAN  
ERANTZUN PUBLIKO  
INSTITUZIONALA EMATEKO  
PROTOKOLOA  
2020**



**AZKOITIA**  
Udala

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>2. ERREFERENTZIA ESPARRUA.....</b>	<b>3</b>
2.1. Esparru juridikoa	
2.2. Esparru terminologikoa	
2.3. Instituzioen koordinazio esparrua	
<b>3. PROTOKOLOAREN HELBURUAK.....</b>	<b>7</b>
<b>4. INDARKERIA SEXISTA KASUEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO ERANTZUN PUBLIKOARI BURUZKO IRIZPIDEA.....</b>	<b>9</b>
4.1. Jarduteko printzipioak	
4.2. Indarkeria sexistaren aurkako kultura bat suspertzea	
4.3. Erantzun eszenatokiak	
<b>5. PROTOKOLOAREN HEDAPENA.....</b>	<b>13</b>
5.1. Protokoloa aktibatzea	
5.2. Biktimarekin eta haren ingurukoekin kontaktua	
5.3. Erasoaren gaineko informazioa biltzea	
5.4. Eragile sozialekin koordinatzea	
5.5. Udal eta foru mailako erantzuna	
<b>6. JARRAIPENA.....</b>	<b>23</b>
<b>7. ERANSKINAK.....</b>	<b>24</b>
7.1. I. Eranskina: Normalean erabiltzen diren terminoen taula, EAE eta estatu mailako esparruarekiko dituen baliokidetasunak ere adierazita	
7.2. II. Eranskina: Erakunde arteko II. Akordioaren jarraipen batordearen erabakia, 2013ko maiatzekoa. Etxeko tratu txarreatiko heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedura	
7.3. III. Eranskina: Bestelako indarkeria matxisten ondorioz jarduteko prozedura	
7.4. Baliabideak	
<b>8. WEB-GUNE INTERESGARRIAK.....</b>	<b>30</b>

## 1. SARRERA

Indarkeria sexista osotasun fisiko eta moralaren kontrako eraso izateaz gain, giza eskubideen urraketa onartezina da. Emakumeei eragiten dien genero-desberdinkerien adierazpenik larriena da eta dituen ondorioek izugarri galarazten dute emakumeak baldintza berdinetan eskubideetara eta aukeretara heltzea. Gure gizarteak duen arazo handienetako bat izaten jarraitzen du, beraz, herritar guztien konpromisuaz gain erakunde publikoen erantzun sendo eta eraginkorra eskatzen du.

Aspalditik dator emakumeen aurkako indarkeriarekiko Azkoitiko Udalaren kezka. Horren froga Udalbatza Plenoak, 2014ko abenduaren 19an egindako bilkuran, onartu zituen "*Indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeei arreta hobea emateko Azkoitiko Udalaren Protokoloa*" eta "*Azkoitiko herrian genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko arreta zerbitzuen koordinaziorako tokiko protokoloa*" dira. Protokolo horiek Azkoitiko zerbitzu eta baliabideak hobetu eta sendotzeko, ibilbide asistentzian parte hartzen duten eragileen arteko prozedura guztiak bateratu ahal izateko eta eraso jasan duten emakumeei arreta integral hobea eskaintzeko landu ziren.

Horrez gain, indarrean dagoen 2018-2021 Azkoitiko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako II. Planak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza lan-ildoaren barruan, "*indarkeri zuzena eta zeharkakoa aztertzea eta horren adierazpenei aurre egitea*"<sup>1</sup> helburutzat jotzen du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan zentratuz gero, Foru Aldundiak ahalegin handiak egin ditu emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko arau eta egokitze esparru bat garatuz, esaterako 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; 2016ko Aurre! Foru Plana, Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko; edo 2017ko Gipuzkoako Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala.

<sup>1</sup> Azkoitiko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako II. Plana 2018-2020, 4. Ardatza: Emakumeen indarkeriarik gabeko bizitza.

Gipuzkoako emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko 2017ko protokoloaren helburuak<sup>2</sup> emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei aurre egiteko fronte komun bat antolatzea, eragile sozialekin izaera bateratuko ibilbide bat eskaintzea eta herritarrekin batera salaketa bateratua tartekatzeko dinamika bat eratzea ziren. Protokolo horrek, Foru arauaren 22.artikuluak jasotzen duen Gipuzkoako lurralde osorako erreminta bateratu bakar bat osatzeko helburu nagusia bete nahi zuen, indarkeria matxistaren aurkako jarrera sozial eta instituzionala areagotuz. Baita 55.artikuluak ezartzen duen biztanleriaren, instituzioen eta komunikabideen mobilizaziorako, gaitzespen publikorako eta zero tolerantziarako konpromiso politikoa betetzea bultzatu nahi zuen.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean udalaren jokabidea eta ematen duen eredia garrantzi handikoak dira. Jendaurreko adierazpenek, indarkeria gaitzesteaz gain, emakumeenganako errespetua sortzen duten patroï soziokulturalak sustatzen laguntzen dute.

*Indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko* Protokolo bat sortuz, Azkoitiko Udalak beste aurrerapauso bat eman nahi du berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako bere engaiamenduan.

---

<sup>2</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an garatutako "Gipuzkoako udalerrietan indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Protokoloa".

## 2. ERREFERENTZIA ESPARRUA

### 2.1. Esparru juridikoa

Jarduketa hauek **emakumeen indarkeriaren aurkako** indarrean dagoen lege-esparru hau hartuko dute erreferentziazat:

- Europar Kontseiluko prebentzioari eta emakumeen aurkako eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokari buruzko Hitzarmena (Istanbuleko Protokoloa), 2011ko maiatzaren 11koa. Espainiar estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsi zuena, eta 2014ko abuztuaren 1a geroztik indarrean dagoena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, Abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriena.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

### 2.2. Esparru terminologikoa

Indarkeria aipatzeko erabiltzen ditugun hitzek garrantzi handia hartzen dute, lortu nahi diren helburuen ildoak marrazten dituztelako eta konpondu beharreko arazoak identifikatzen dituztelako. Hitzen erabilera sentsibilizatzeko, eraldaketa sozialerako eta jarrera hartzeko tresna indartsua izan daiteke.

Une honetan sakonduko ez dugun arrazoi askorengatik, emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan bada halako nahaste terminologiko bat. Beraz, Protokolo honek oinarri dituen irizpideak hasieratik argitzea komeni da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak "indarkeria matxista"<sup>3</sup> terminoa hartzen du erabilera orokortzat, sorburuan sozializazio bikoia (gizona - emakumea) eta genero desberdintasuna dituen indarkeriari buruz ari denean. Beraz, "indarkeria matxista"<sup>4</sup> erabiltzerakoan honakoak ari gara aipatzen:

- Indarkeria sexista, emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dutena, hau da, emakumeek irudikatzen dutenagatik horien aurka berariaz erabiltzen diren indarkeria mota guztiak, eta helburu eta ondorio emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea duena.
- Genero rol sozial bikoiei eta horiei lotutako sexualitateari egokitzen ez zaizkien pertsonen gainean ezartzen diren beste indarkeria batzuk. Homofobia, lesbofobia eta transfobiaz ari gara.

Indarkeria matxistaren kontra borrokatzeko, foru politikak indarkeria sexista edo emakumeen kontrako indarkeriara jo du nagusiki, esparru horretan baitu Aldundiak arretarekin, ikerkuntzarekin eta prebentzioarekin lotutako eskumen zuzenak. Beraz, adierazitako terminologia-eremuarekin<sup>5</sup>, indarrean dagoen legediarekin, foru eta udal politiken garapenarekin koherentzia mantentzeko, Protokolo honek emakumeen kontrako indarkeria du ardatz nagusia; hots, **indarkeria sexista** kasuetarako erantzun instituzionala emateko prozedurak ezartzen ditu bereziki.

Alabaina, indarkeria matxistak sistema heteropatriarkalak ezartzen dituen eredu hegemonikoak hausten eta zalantzan jartzen dituzten pertsonen eragiten diela ez da ahaztu behar. Hori dela eta, bestelako indarkeria matxisten ondoriozko kasu larrietan (heriotza denean edo lesio larriak direnean), Azkoitikoko Udalak gaitzesteko jendaurreko jarduerak ere egingo ditu. Kasu horietarako prozedura protokolo honen III. Eranskinan jaso da.

<sup>3</sup> Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 51. artikulua.

<sup>4</sup> Ikusi "Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria

<sup>5</sup> Nazio, estatu eta Europa mailako zenbait erakundeek bereizi gabe erabiltzen dituzten kontzeptu desberdinak aipatzen dituzten terminoak, eta horrek eragin dezakeen nahastea saihestearren, 1. Eranskinak proposamen terminologikoaren garapena jasotzen du, beste erakunde batzuek erabiltzen dituzten kontzeptuekiko baliokidetasunekin batera.

### 2.3. Instituzioen koordinazio esparrua

Hiru dira Aurre! Foru Planak kontuan hartzen dituen koordinazio planoak: forala, lurralde mailakoa eta autonomia mailakoa.

- Gipuzkoak indarkeria sexistaren aurkako foru politika zeharkakotasunetik jorratzen du. Horren kudeaketaz, batetik, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa* arduratzen da (politika bultzatzeko, koordinatzeko eta jarraipena egiteko organo sustatzailea da); bestetik, biktimen arretaz eta indarkeria sexistaren arloko prestakuntzaz, ikerkuntzaz, sentsibilizazioz eta prebentzioaz arduratzen diren sailak.
- Lurralde esparruan, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako politika publikoen ikuspegi partekatu batek egituratzen du foru eta udal jarduera, esku-hartzeen eraginkortasuna eta efizientzia hobetuko duen lan-sarea finkatzeko eta sendotzeko asmoz. Sare hori foru eta udal mailan eratzen da, berdintasunaren eta gizarte zerbitzuen arloan.
- Euskal Autonomi Erkidego mailan, *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa* dugu indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei arreta ematen diharduten euskal erakundeen arteko koordinazioaren hobekuntzarako oinarria. Gipuzkoako Foru Aldundia akordioaren eta haren jarraipen batzordearen parte da.

Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak, 2013ko maiatzean egindako bileran, etxeko tratu txarreatatik eta sexu indarkeriatatik gertatzen diren heriotza kasuen aurrean erantzun instituzional koordinatua emateko jarduera prozedurak finkatu eta adostu zituen. Eguneratze horrek bi xede ditu: batetik, errefusa eta gaitzespen instituzionala aditzera ematea eta biktimen familiei eta, hala dagokionean, adingabeko seme-alaba biktimei erakundeen babesa ematea da; bestetik, erakundeek emandako arreta, esku-hartzea eta koordinazioa hobetzea, emakume gehiago erahilak izan ez daitezen.

Era berean, prozedurak martxan jartzea eragingo duten ondoko egoerak ezartzen ditu:

- Etxeko tratu txarrezko egoera baten ondorioz, emakume bat bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen duenean.
- Emakumea hiltzen dutenean, sexu eraso bitarte.

II. Akordioaren sinatzaile gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen du etxeko tratu txarreatatik eta sexu erasoengatik gertatzen diren heriotza kasuetan jarduteko prozedura (2.eranskina); eta prozedura hori sartu egiten du bere Protokoloan, ak-tibatzen den kasu zehatzetan, eta gainera testuko 1. koma-arteko C puntua garatzen du, horretan zehazten baita gaitzespen ekitaldian kasuan kasuko Foru Aldundiaren ordezkari bat behintzat izango dela.

*Indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Azkoitiko Udal Protokolo* honen garapenak aipatutako II. Akordioan ezarritako prozeduretan eta Gipuzkoako foru protokoloaren proposamenetan du oinarria.



### 3. PROTOKOLOAREN HELBURUAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek indarkeria sexista (emakumeak eta haien bizitzako arlo guztiak menderatzeko modu gisa ulertuta) deuseztatzeko engaiamendu eta agindua daukate, *4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak* jasotzen duen moduan *emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko VII. Kapitulu*an.

Agindu hori betetzeko, udalerrietan, ahal izan duten neurrian, indarkeria sexistari aurre egiteko zenbait aspektu hartu dira kontuan:

- Udalerriko gizarte-zerbitzuak indarkeria sexista jasan duten emakumeekin esku-hartzeko sarbide bilakatzea.
- Arazoaren jatorriari arreta jartzea, hau da, prebentzio politikak sustatzea eta ez soilik ondorioetan erreparatzea.
- Sentsibilizazio kanpainen bidez, erasotako emakumeen erruduntasunik eza eta erantzukizun soziala bultzatzea.
- Indarkeria sexistaren arloko prebentzioaz eta arretaz arduratzen diren udalerriko sail ezberdinen arteko erantzun koordinatua bultzatzea.
- Mugimendu feministarekin eta beste eragile sozial batzuekin behar bezalako erantzun adostua ematea.

Indarkeria sexistak egitura soziala iraunarazten duen emakume eta gizonen arteko harreman asimetrikoaren eredu

an du sorburua. Beharrezkoa da gizarte eraldaketa bat martxan jartzea arazoaren erroari eta bere adierazpenei aurre egiteko, hau da, indarkeriaren ondorioak bakarrik jorratu ordez, sustraietara joko duten politikak abiarazi behar dira, biktimak errudun bihurtuko ez dituzten eta gizarteak indarkeria mota horretan duen erantzukizuna indartuko duten sentsibilizazio-programen bidez.

Protokolo honek beharrezko gizarte eraldaketa hori bultzatzeko tresna bat izan nahi du, erakunde publikotik bertatik sortua, horretan jarraibide egonkor eta sistematizatuak ezartzeko, alde

aurretik adostuak eta agindu mailara eramanak.

Beraz, biktimei arreta osoa eta lehentasunezkoa emateko, erasotzailearen gaitzespena publikoki adierazteko eta biktimei une oro laguntza erakusteko mekanismoak barne hartzen ditu. Era berean, gizarteari salaketa bateratuak tartekatze bidea ematen dio, beraren partaidetza ahalbidetuz eta bultzatuz.

Protokolo honen barruan, helburu hauek nabarmentzen dira:

- Udalaren **erantzun integrala eta garbia** eratzea, eta erakundearen eta hura osatzen duten pertsonen jokabide irmoa proiektatzea.
- **Eraginkorrak** izatea indarkeriariaren aurrean publikoki erantzuteko orduan, erakundeen koordinazioa erraztuz.
- Gizarte eragileen eta herritarren **adierazpen bideak** sendotzea emakumeen aurkako erasoen aurreko **erantzun** publikoari dagokionez.
- **Azkoitiko udalaren gaitzespen** publikoa erakustea indarkeria sexista mota guztiei eta biktimei laguntzeagatik edozein indarkeria pairatzen duenari.
- Indarkeria sexistarekiko **tolerantziarik ezaren kultura** eta **sentsibilizazioa** sustatzea, adierazpen ororen aurrean, edozein esparru eta formetan.
- Eraso sexistaren biktimari **arreta bermatzea**. Foru eskumeneko zerbitzu eta baliabideak eta udal eskumenekoak koordinatuta eskainiko dira.
- Emakumeen **eskubideak eta askatasuna indartzen** laguntzea, emakumeen segurtasuna bermatuz beldurraren kulturarik sorrarazi gabe.
- Hedabideetan **indarkeria sexistaren tratamendu egokia** bultzatzea, indarkeriaren erantzulea indarkeria erabiltzen duena baino ez dela azpimarratuz.
- Indarkeria sexistaren kontrako Azkoitiko herriaren jarrera sendotzea.

#### 4. INDARKERIA SEXISTA KASUEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO ERANTZUN PUBLIKOARI BURUZKO IRIZPIDEA.

Emakume baten aurkako indarkeri kasuaren aurrean emandako erantzunak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:



##### 4.1. Jarduteko printzipioak.

Protokolo honek sustatutako jendaurreko erantzunaren oinarri dituen jarduera printzipioek biktima eta bere ingurunea babestea kokatzen dute arreta sistemaren erdigunean. Hori dela eta, honako oinarrizko printzipio hauek ezartzen dira:

##### **Lehentasunezko arreta erasotako emakumeari.**

Egituraketa eraginkor eta arina bermatzea dakar lehentasun horrek, eta egoera horiek berezkoa duten premiaz jardutea. Arreta zerbitzuak indarkeria kasu bakoitzaren errealitatera egokitu beharko dira erantzuna emateko orduan, kasu bakoitzak ezaugarri partikularrak baititu.

### **Erantzun bizkor, koordinatu eta eraginkorra.**

Eraso sexista baten berri dugun bakoitzean, erantzuna bizkorra izango da, arazoan murgildutako erakunde guztiekin koordinatua, eta eraginkorra.

### **Erasotzaileak arbuiatzea.**

Erasoak eta erasotzaileak arbuiatzeko eta gaitzesteko erantzuna sustatuko da.

### **Informazio fidagarria.**

Sentsazionalismoa eta alarma soziala saihestu behar dira, eta informazioa kontrastatuko duen jarrera arduratsua agertu.

### **Informazio konfidentziala.**

Emakumearen datuak eta erasoak nola gertatu den adierazten duten xehetasunak konfidentzialak<sup>6</sup> dira, biktimekiko arretaren ardura duten teknikariaren esku bakarrik egon daitezke. Teknikariak politikariei beharrezkoa den informazioa emango die erantzun instituzionala kasuaren dimentsioarekin proportzionala izan dadin.

Beraz, datu pertsonalak eta ezinbestekoak ez diren erasoari buruzko xehetasunak ekidingo ditu.

### **Prebentziozko jarduera.**

Egunero egiten den indarkeria sexistaren prebentziorako lana areagotu, indartu egingo da erasoren bat gertatzen denean, batez ere biktimen inguruan, estigmatizatzea eta errudun sentitzea saihesteko eta sentsibilizazioa sendotzeko.

## **4.2. Indarkeria sexistaren aurkako kultura bat suspertzea.**

<sup>6</sup> 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko

Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean jendaurrera zabaltzen diren instituzioen komunikazioek funtsezko rola betetzen dute gizartearen sentsibilizazioan. Estereotipo eta aurreiritziak ezabatzeko, biktimen babesaren bultzatzeko eta indarkeria sexista gaitzesten duen gizarte iruditegia sortzeko baliogarriak dira.

Azkoitiko udalak eta gizarteak indarkeriaren aurrean jarrera irmoa dutela argi eta garbi adierazi behar da. Horretarako, udal erakundeak biktimen babeserako neurriak indartzeaz eta euren segurtasuna lantzeaz gain, hurrengo tresna hauetaz baliatu daitezke.



### 4.3. Erantzun eszenatokiak

Protokoloa maila desberdinetan aktibatzen da eraso sexistatzat har daitezkeen gertaera guztien aurrean. Horretarako, erantzun eszenatoki desberdinak ezartzen ditu, eskubide urraketaren larritasunaren arabera.

Kasu guztiak salagarriak dira, guztiek jasotzen dute erakundearen eta herritarren arbuioa, eta gaitzespen adierazpenerako tresna sistematizatuak eskaintzen dira.

Hurrengo taulan, Protokoloa aktibatzea eragingo luketen indarkeria sexistako 4 eszenatokiak jasotzen dira.

<p><b>0 Eszenatokia</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Emakume bat bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen duenean, etxeko tratu txar egoera baten ondorioz.</b></li> <li>- <b>Emakumea sexu eraso bidez erailtzen dutenean.</b></li> </ul>
<p><b>1 Eszenatokia</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Bikotekideak, bikotekide ohiak hiltzen saiatzea.</b></li> <li>- <b>Senide batek, ezagun edo ezezagun batek emakumea erahiltzea edo erahiltzen saiatzea.</b></li> <li>- Genero indarkeriaren <b>biktima den emakume baten seme-alabak hiltzea edo hiltzen saiatzea.</b></li> <li>- Indarkeria sexistaren <b>biktima hiltzea, denbora bat lehenago izandako eraso baten ondorioz.</b></li> </ul>
<p><b>2 Eszenatokia</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten <b>lesio larriak eragin dituen erasoak.</b></li> <li>- <b>Sexu erasoak, abusua</b> eta erasoarekin batera izan daitezkeen <b>beste inguruabar larrigarriak</b> (bahiketa, eraso kolektiboa, konortea galaraztea edo galtze horretaz erasotzeko baliatzea).</li> <li>- <b>Sexu jazarpena edota jazarpen sexista</b> laneko edota irakaskuntzako esparruan edo beste esparru batzuetan, denboran zehar errepikatzeko aukera dagoenean.</li> <li>- <b>Erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun gorpuetako langileak edo udalerriko eragile esanguratsuetako langileren bat den kasuetan edota erasoak behin baino gehiagotan eman bada erasotzaile beraren eskutik</b>, leku berean eta hemen aurreikusten ez diren egoeretan, delitua larriagotzat hartu ahal izango da gerora begira.</li> <li>- Erasoak <b>espazio publikoetan gertatzen direnean</b>, beste pertsona batzuen aurrean.</li> </ul>
<p><b>3 Eszenatokia</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Lesio gabeko edo lesio oso larririk gabeko eraso bat</b>, zeinak emakumearen ezaugarriengatik, udalerrigatik edo beste edozein egoera dela eta <b>alarma sozial berezi edo garrantzitsutzat jo daitekeena</b> eragin duenean.</li> <li>- Balorazio bat egin ondoren <b>eskubideen aurkako urraperen berezitzat jo</b> eta arestian aipatu ez den edozein egoeraren aurrean.</li> </ul>

## 5. PROTOKOLOAREN HEDAPENA

## 5.1. Protokoloa aktibatzea

Protokoloa hurrengo kasuetan aktibatuko da:

- Azkoitian gertatutako kasuetan.
- Azkoitiatik kanpo gertatu direnean gertaerak, baina biktima edo erasotzailea Azkoitian bizi edota herriarekin lotura estua duenean.
- Aurreko bi kasuetan biktima defendatzen edo horri laguntzen joan eta horren ondorioz erasotua izan denean pertsona bat.

Protokoloaren aktibazioaz biktima diren emakumeei eman beharreko arreta zerbitzuen koordinaziorako **Batzorde Teknikoa** arduratuko da. Oinarrizko gizarte zerbitzuetako teknikariari dagokio batzordearen funtzionamendua zaintzea.

Erasoaren balorazioa egin eta gero, Azkoitiko Udalak Osoko Bilkura edota Bozeramaileen Batzordea deituko du adierazpen instituzionala eta adostutako akzioak onartzeko.

## 5.2. Biktimarekin eta haren ingurukoekin kontaktua

Azkoitiko udalak eta bertako ordezkariak emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko beharrezkoa den kultura parekidea sortzeko beraien konpromisoa eta ardura hartuko dute. Honela Azkoitian sor daitezkeen indarkeria kasuen aurrean erantzuna emateko bideak jorratuko ditu<sup>7</sup>.

Indarkeri sexistaren kasu baten berri izan ondoren, Udaleko Gizarte Zerbitzuak emakumearekin edo senideekin (betiere emakumeak ezin badu erabaki eraila izan delako, ospitaleratuta edo shock egoeran dagoelako) kontaktuan jarriko dira erakundearen elkartasuna adierazteko eta udal ordezkariak euren beharrei erantzuteko daudela jakinarazteko.

---

<sup>7</sup> "Indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeei arreta hobe emateko Azkoitiko Udalaren Protokoloa" eta "Azkoitiko herrian genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko arreta zerbitzuen koordinaziorako tokiko protokoloa" Udalbatza Plenoak, 2014ko abenduaren 19an egindako bilkuran onartuak.

Neska adingabe baten kasuan, familiarekin legezko tutorearekin jarriko gara harremanetan, beharrezko laguntza eskaintzeko eta neskarekin harremanetan jartzeko bideak zehazteko.

Azkoitiko Gizarte Zerbitzuen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Departamenduaren arteko koordinazioa ezarriko da bi erakundeek dauzkaten arreta baliabideak eskaintzeko. Emakumeen pribatutasuna une oro ziurtatuko da.

Erasotako emakumea udal edo foru zerbitzu batekin harremanetan egon bada edo badago, arreta hau zabalduko da erasotik eratorritako beharrianak asetzeko. Adin txikikoak tartean direnean, ume eta nerabeen interes gorena kontuan hartu beharko da. Lehenik eta behin familiarekin edota legezko tutorearekin hitz egin beharko da euren babesa, ongizatea eta garapena bermatzeko.

Erasoa jasan duen emakumeari edo bere senideei jakinaraziko zaie Udalak gertatutakoaren aurrean horri aurre egiteko akzioak egingo dituela. Kontzentrazio baterako deialdi bat egiteko aukeraren berri emango da. Ezinbestekoa da emakumearen edota senideen samina errespetatzea hala nola erasoak sortarazten duen shocka gainditzeko beharrezko denbora tartea ematea, abian jarri edo sustatu nahi diren ekintza publikoak elkarrekin erabakitze aldera<sup>8</sup>.

Emakumea edo bere familia ez badator bat edo zalantzak baditu biztanleria biltzen duen ekintza bat egiteko, erreakzio hori errespetuz baloratuko da, baina, gertakariak publikoak egin badira, erantzun publikoa ematearen erabakia autoritate foral, udalerrikoei eta autonomikoei dagokiela azalduko zaie.

Une oro, premiazkoa da emakumearen intimitate-eskubidea bermatzea, bereziki adin gabea bada. Inguruaren eta udal eta foru politikarien laguntasuna sentitu behar du, baina berma daitezkeen zerbitzuak baino ez dizkiote eskaini behar, okerreko itzaropenik ez sortarazteko.

---

<sup>8</sup> *Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak* (2014ko apirilean Emakundek eta EUDELe argitaratu zuten eskuliburua, Berdinsarearen bidez). Hemen kontsultatu eta deskargatu daiteke: [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_subvencionadas/es\\_def/adjuntos/os/recomendacionesviolenciacontramujeres.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/es_def/adjuntos/os/recomendacionesviolenciacontramujeres.pdf)



### 5.3. Erasoaren gaineko informazioa biltzea

Erasoen gaineko informazioa jaso eta kontrastatu ahal izateko bilerak egingo dira edota telefonoz edota beste bitarteko elektronikoko batzuen bidez komunikazioa ezarriko da. Bilerak eragile inplikatu guztiekin batera edota horietako batekin edo batzuekin banaka egin ahal izango dira. Honako eragile hauek izango dira inplikatuak:

- Informazio garrantzitsua duten udal arloetako arduradunak.
- Azkoitiko Ertzaintzaren Komisariaren arduraduna.
- Goierri-Urola Garaia ESIaren, hots, Erakunde Sanitario Integratuaren, arduradunak, eta Osakidetzaren iritziz informazio garrantzitsua eman dezaketen langileak.
- Foru Saitetako zuzendaria edo horiek eginkizun hori delegatzen dieten pertsonak.
- Informazio garrantzitsua izan dezaketen mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteak.
- Kasuaren informazioa eman dezaketen beste pertsona batzuk.

Jaso beharreko informazioaren konfidentzialtasuna une oro hartuko da kontuan.

### 5.4. Eragile sozialekin koordinatzea

Gomendagarria da mobilizazio edo elkarretaratzeen deialdiak Azkoitiko eragile sozialekin (mugimendu feminista, emakumeen elkarteak...) era koordinatuan egitea, bai deialdi bateratuak egiteko, bai udalerrian egindako deialdietara batzeko edo, gutxienez, bi deialdiak aldi berean ez gertatzeko.

### 5.5. Udal eta foru mailako erantzuna

Arestian aipatu ditugun elementu guztiak aintzat harturik, dagokion egiturak urratu diren eskubideen larritasun maila, gizartean izandako eragina eta erasotik eratorritako beste elementu batzuk baloratuko ditu, horrela, erantzun publikoaren proposamena garatu ahal izateko.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## 0 Eszenatokia

- Emakume bat **bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen duenean**, etxeko tratatu txar egoera baten ondorioz.
- Emakumea **sexu eraso bidez erailtzen dutenean**.

### Jarraitu behar diren urratsak

Erakundearteko II. Hitzarmenaren Segimendu Batzordearen 2013ko maiatzeko erabakian ezarritakoarekin bat egingo duen prozedura jarraituko da.

### 1. Jendaurreko erantzuna

Egitateak jakin eta egiaztatu ondoren, hauek izango dira Udalak emango dituen urratsak:

- Udalak **ezohiko Osoko Bilkura deituko du**, gaitzespenerako eta familia babesteko **deklarazio instituzionala** onartuko du eta tokiko bitartekoen bidez zabalduko da; bestalde, udalaren webean eta sare sozialetan egongo da. Jarraipen Batzordeko presidentetzari ere bidaliko zaio, horren berri izan dezan.
- Udalak **10 minutuko elkarretaratzea** deituko du, erabakiko duen ordu eta egunean, lelo honen pean: «Azkoitia: indarkeria sexistaren aurka». Deialdia Udalaren webean eta Intraneten argitaratuko da, udaleko langileak eta herritarrak oro har elkarretaratzean parte hartzera gonbidatzeko. Era berean, Segimendu Batzordeko presidentetzari bidaliko zaio deialdia.
- Ekitaldi horietara, *Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Abokatutzaren Euskal Kontseiluko* eta dagokion medikuen elkargoko ordezkari politiko bana agertuko da gutxienez. Halaber, Udalak dauden gizarte-baliabideetara iristea erraztuko die biktimen senideei, eta, egokitzat jotzen bada, herriko-akzioa erabiliko du.
- **Biztanleriaren deialdia** egingo da, ahal den neurrian, elkarteen mugimenduarekin akordio batera helduz, horrela, honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan. Momentu oro biktimaren familiari egoeraren berri emango zaio.
- Prentsa-oharren bidez edo beste bide batzuen bidez emango zaie herritarrei elkarretaratze horren berri. Indarkeria arbuiatzeko beste jarduera batzuei babesa ematea erabakitzen bada, Udalaren konpromisoa komunikatuko da.

**Jarraitu  
behar diren  
urratsak**

**2. Biktimaren inguruarekin harremanetan jartzea**

Erakundearteko II. Hitzarmenak jasotzen duen bezala, tartean dauden erakundeen koordinazioa bultzatuko du<sup>9</sup> **Segimendu Batzordeko presidentetzak**<sup>10</sup>, senideei eta haren inguruari, semealaba adingabeei eta, hala bada, beste biktima batzuei dagozkien laguntza eta zerbitzu guztiak emateko.

Udalaren jarduerari dagokionez, emakumeei eta senideei laguntzeko baliabideak eskainiko dira; premiaz aktibatuko dira horiek, eta kaltetuen unean uneko premiei egokituko zaizkie.

**3. Biktimekiko esku-hartzea edota arreta hobetzeko prozedura**

a) Kasuan zuzeneko inplikazio handiena duten erakundeek osatutako talde batek aztertuko du kasu zehatz bakoitza, eta **Emakunde** koordinatuko du prozesua. Azterketa horretan, **kasuaren historia kronologikoa** egiten saiatuko dira, erasotako emakumearen ibilbide osoa berreskuratuz (edozein administraziok edo zerbitzu publikok bere berri izan duen lehenengo unetik aurrerakoa), eta edozein administraziorekin edo zerbitzu publikorekin izan dituen harreman guzti-guztiak sartuko dira. Ibilbide hori dokumentu batean islatuko da oso-osorik, eta hobetu daitezkeen alderdiak zehazteko oinarritzat hartuko da. Dokumentua azken txostenarekin batera aurkeztuko zaio Segimendu Batzordeari.

b) **Segimendu Batzordeak** egoki ikusten badu, **erakundeen arteko talde teknikoak** aztertu ahalko du berriro txostena, zeina Batzordeari euskarria emateko sortu den, hobetzeko proposatzen diren alderdiak berrikusiko xedez.

Azkenik, **Segimendu Batzordeak bideratuko du txostena**, eta bertan eskatzen diren hobekuntzak egin ditzala eskatuko dio tartean dagoen administrazio edo zerbitzu publiko bakoitzari.

<sup>9</sup> Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedura.

Erakundearteko Hitzarmenaren Segimendu Batzordea:

[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia\\_coordinacion/es\\_def/adjuntos/1ai.-procedimiento.muerte.cas.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/1ai.-procedimiento.muerte.cas.pdf)

<sup>10</sup> Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendaria izango da Segimendu Batzordeko burua.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## 1 Eszenatokia

- **Bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen saiatzea.**
- **Senide batek, ezagun edo ezezagun batek emakumea erahiltzea edo erahiltzen saiatzea.**
- Genero indarkeriaren biktima den emakume baten **seme-alabak hiltzea edo hiltzen saiatzea.**
- Indarkeria sexistaren **biktima hiltzea, denbora bat lehenago izandako eraso baten ondorioz.**

### Jarraitu behar diren urratsak

#### 1. Jendaurreko erantzuna

Egitateak jakin eta egiaztatu ondoren, hauek izango dira Udalak emango dituen urratsak:

- Udalak **ezohiko Osoko Bilkura deituko du**, gaitzespenerako eta familia babesteko **deklarazio instituzionala** onartuko du eta tokiko bitartekoen bidez zabalduko da; bestalde, udalaren webean eta sare sozialetan egongo da. Jarraipen Batzordeko presidentetzari ere bidaliko zaio, horren berri izan dezan.
- Udalak **10 minutuko elkarretaratzea** deituko du, erabakiko duen ordu eta egunean, lelo honen pean: «Azkoitia: indarkeria sexistaren aurka». Deialdia Udalaren webean eta Intraneten argitaratuko da, udaleko langileak eta herritarrak oro har elkarretaratzean parte hartzera gonbidatzeko. Era berean, Segimendu Batzordeko presidentetzari bidaliko zaio deialdia.
- **Biztanleriaren deialdia** egingo da, ahal den neurrian, elkarteen mugimenduarekin akordio batera helduz, horrela, honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan. Momentu oro biktimaren familiari egoeraren berri emango zaio.
- Prentsa-oharren bidez edo beste bide batzuen bidez emango zaie herritarrei elkarretaratze horren berri. Indarkeria arbuiatzeko beste jarduera batzuei babesa ematea erabakitzen bada, Udalaren konpromisoa komunikatuko da.

## 2. Emakumearen inguruarekin harremanetan jartzea

- Gizarte Ongizate Sailak tartean dauden erakundeen koordinazioa bultzatuko du, emakumeei, senideei eta haren inguruari, seme-alaba adingabeei eta, hala bada, zeharkako nahi zuzeneko beste biktima batzuei dagozkien laguntza eta zerbitzu guztiak emateko.
- Udalaren jarduerari dagokionez, **laguntzeko baliabideak** eskainiko ditu; premiaz aktibatuko dira horiek, eta kaltetuen unean uneko premiei egokituko zaizkie.

## 3. Emakumekiko esku-hartzea edota arreta hobetzeko prozedura

a) Gizarte Ongizate Sailak **kasuaren historia kronologikoa** egingo du, edozein administraziok edo zerbitzu publikok emakumearen berri duenetik aurrerako ibilbide osoa jasoz. Ibilbide hori dokumentu batean islatuko da oso osorik, eta hobetu daitezkeen alderdiak zehazteko oinarritzat hartuko da.

Dokumentua azken txostenarekin batera aurkeztuko zaio Protokoloaren Batzorde Teknikoari.

b) **Batzorde Teknikoak** egoki ikusten badu, txostena aztertu eta berrikusi egingo da, hobekuntza-jarraibideak ezartzeari begira.

c) **Urteko memoria** egingo da, eta, bertan, Protokoloaren garapen orokorraren koordinazioa eta hobekuntzen nahiz proposamenen jarraipena jasoko dira.

 <p>AZKOITIKO UDALA AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA</p>	<h2 style="text-align: center;">2 Eszenatokia</h2> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten <b>lesio larriak</b> eragin dituen erasoak.</li> <li>- <b>Sexu erasoak, sexu abusua</b> eta <b>erasoarekin batera</b>, hau <b>larritzen duten beste egoera batzuk</b>; hala nola bahiketa, eraso kolektiboa, konortea galaraztea edo konorte galtze hori erasotzeko baliatzea.</li> <li>- <b>Sexu jazarpenera</b> edota <b>jazarpen sexista laneko</b> edota <b>irakaskuntzako esparruan</b> edo beste esparru batzuetan, jazarpen hori denboran zehar <b>errepikatzeko aukera dagoenean</b>.</li> <li>- <b>Erasotzailea</b> edo <b>erasotzaileak funtzionario publikoak, se-gurtasun gorpuetako langileak</b> edo <b>udalerriko agente</b> esanguratsuetako langileren bat den kasuetan edota erasoak behin baino gehiagotan eman bada erasotzaile berdinen eskutik, leku berean eta hemen aurreikusten ez diren egoeretan, delitua larriagotzat hartu ahal izango da geroa begira.</li> </ul>
<p><b>Jarraitu behar diren urratsak</b></p>	<h3>1. Emakumearekin harremanetan jartzea.</h3> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udal Gizarte Ongizate saila emakumearekin harremanetan jarriko da berak hartu nahi dituen erabakiak eta dauzkan beharrak zuzenean ezagutzeko. Aholkularitza eta laguntza eskainiko zaizkio.</li> <li>- Udalerriko gizarte zerbitzuak erakundeekin koordinatuko dira eta erasotako emakumearen prozesuaren jarraipena egingo dute, behar diren laguntza desberdinak kudeatuz.</li> <li>- Emakumea edota familia (adin gabeen kasuan) gaitzespen publikorik egin nahi ez badu ere, gertakariak publiko egin badira, Udala behartuta dagoela erantzun publiko instituzionala ematera jakinaraziko zaio.</li> </ul>

## 2. Jendaurreko erantzuna

- Edozein bideren<sup>11</sup> bidez Udalak lehenago aipatutako gertaera eragile baten berri badauka:
- Bozeramaileen Batzordea deituko du.
- Protokolo honen Koordinazio Batzordea bilduko da, gertatutako egintzak kontrastatu eta baieztatuko dituzte, bertatik ateratako ondorioak Bozeramaileen Batzordeari jakinaraziz.
- **Bozeramaileen Batzordeak**, gaitzespenerako, emakumea eta familia babesteko **deklarazio instituzionala** onartuko du eta telekomunikabideen bitartez, edota udaleko hedapen kanal ezberdinen bitartez jakin araziko da.
- **Biztanleriaren deialdia** egingo da, ahal den neurrian, elkarteen mugimenduari akordio batera helduz, horrela, honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan. Momentu oro erasotako emakumeari egoeraren berri emango zaio.

## 3. Emakumekiko esku-hartzea edota arreta hobetzeko prozedura


a) Gizarte Ongizate Sailak **kasuaren historia kronologikoa** egingo du, edozein administraziok edo zerbitzu publikok emakumearen berri duenetik aurrerako ibilbide osoa jasoz. Ibilbide hori dokumentu batean islatuko da oso osorik, eta hobetu daitezkeen alderdiak zehazteko oinarritzat hartuko da.

Dokumentua azken txostenarekin batera aurkeztuko zaio protokoloaren Batzorde Teknikoari.

b) **Batzorde Teknikoak** egoki ikusten badu, txostena aztertu eta berrikusi egingo da, hobekuntza-jarraibideak ezartzeari begira.

c) **Urteko memoria** egingo da, eta, bertan, Protokoloaren garapen orokorraren koordinazioa eta hobekuntzen nahi proposamenen jarraipena jasoko dira.

<sup>11</sup> Biktimaren bidez, bere inguruaren bidez, udalerriko zerbitzuren bat jakinaren gainean badago, Ertzaintza, elkarte sareak, mugimendu feministak, edo beste talde sozial batzuen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez edo tokiko edota nazio mailako telekomunikabideen bidez.

 <p>AZKOITIKO UDALA AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA</p>	<h3 style="text-align: center;">3 Eszenatokia</h3> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Lesio gabeko edo lesio oso larririk gabeko eraso bat</b>, zeinak emakumearen ezaugarriengatik, udalerrigatik edo beste edozein egoera dela eta <b>alarma sozial berezi edo garrantzitsutzat jo daitekeena</b> eragin duenean.</li> <li>- Balorazio bat egin ondoren <b>eskubideen aurkako urrapen berezitzat jo</b> eta arestian aipatu ez den edozein egoeraren aurrean.</li> </ul>
<p style="text-align: center;"><b>Jarraitu behar diren urratsak</b></p>	<h3>1. Emakumekiko esku-hartzea edota arreta hobetzeko prozedura</h3> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udal Gizarte Ongizate saila erasotako emakumearekin harremanetan jarriko da berak hartu nahi dituen erabakiak eta dauzkan beharrak zuzenean ezagutzeko. Aholkularitza eta laguntza eskainiko zaizkio.</li> <li>- Emakumea edota familia (adin gabeen kasuan) gaitzespen publikorik egin nahi ez badu ere, gertakariak publiko egin badira, Udala behartuta dagoela erantzun publiko instituzionala ematera jakinaraziko zaio.</li> <li>- Udalerriko gizarte zerbitzuek, erasotako emakumearen prozesuaren jarraipena egingo dute, behar diren laguntza desberdinak kudeatuz eta koordinazioak eginez.</li> <li>- Kasuaren <b>historia kronologikoa</b> egingo dute eta azken txostenarekin batera aurkeztuko zaio protokoloaren Batzorde Teknikoari.</li> </ul>
	<h3 style="text-align: center;">2. Jendaurreko erantzuna.</h3> <p>Batzorde Teknikoak gertatutakoa kontrastatu eta baieztatu ostean, ateratako ondorioak Bozeramaileen Batzordeari jakinaraziko dizkio. Honek, gaitzespenerako, emakumea babesteko <b>deklarazio instituzionala</b> onartuko du eta telekomunikabideen bitartez, edota udaleko hedapen kanal ezberdinen bitartez jakinaraziko da.</p> <p><b>Biztanleriaren deialdia</b> egingo da, ahal den neurrian, elkarte eta mugimendu feministarekin akordio batera helduz, eta une oro biktimari egoeraren berri emanez.</p>



## 6. JARRAIPENA

Protokoloa aktibatu den ala ez gorabehera, *urteko memoria* egingo da. Azkoitiko Udalak indarkeria sexistaren arloko arretaren inguruan bildu dituen datuak talde politikoei helaraziko dizkie.

Banakako kasuen kopuruari buruzko informazio zehatza emateaz gain, analisia indarkeria sexistaren problematikaren azterketan zentratuko da. Beraz, estatistikak emateaz gain, egoera zehatz bat hartu ahalko da horren aurrean nola jardun den azaltzeko.

Memoria horren bertan, Protokoloaren garapen orokorrerako eta koordinazioarako hobekuntzak eta proposamenen jasoko dira.

## 7. ERANSKINAK

**7.1. I. Eranskina: Normalean erabiltzen diren terminoen taula, EAE eta estatu mailako esparruarekiko dituen baliokidetasunak ere adierazita.**

- > Indarkeria sexista = emakumeen kontrako indarkeria matxista
- > Indarkeria sexista = **emakumeen kontrako indarkeria** (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa)
- > **Genero indarkeria** (abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesaren emateko neurriei buruzkoa) = Indarkeria sexista bikotearen edo bikotekide ohiarekiko harremanaren esparruan
- > **Indarkeria sexista** = genero indarkeria + indarkeria sexuala + Familia edo lan esparruko indarkeria, esparru birtualekoa, sozialekoa...
- > Indarkeria matxista = indarkeria sexista + (transfobia + lesbofobia + homofobia) + Genero barneko indarkeria
- > **Etxeko indarkeria** (Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen Artekoko II. Akordioa) = Indarkeria sexista familia esparruan = genero indarkeria familia barruko indarkeria
- > Sexu jazarpena = indarkeria sexista laneko esparruan, eskolakoan, espazio birtualetan, espazio publikoetan eta sexu izaerakoak ez diren beste batzuk
- > Sexu izaerako indarkeria sexista = sexu erasoak + sexu abusua + sexu jazarpena (Sexu askatasunaren kontrako delituak, Kode Penalak; 178.-194. artikulak)

## **7.2 II. Eranskina: Erakunde arteko II. akordioaren jarraipen batzordearen erabakia, 2013ko maiatzekoa. Etxeko tratu txarreatiko heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedura**

### **Etxeko tratu txarreatiko heriotza eta sexu eraso kasuetan jarduteko prozedurak**

Prozedura honen xedea, batetik, arbuio instituzionala adieraztea eta biktimaren familiari eta, hala dagokionean, adin txikiko seme-alaba biktimei erakundeen laguntza erakustea da, eta bestetik, erakundeek eman arreta eta erakundeen esku-hartze eta koordinazioa hobetzea, azken batean emakume gehiago hiltzea saihestearren. Ondoko egoera hauetan jarriko dira martxan prozedurak:

Emakume bat bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen duenean, etxeko tratu txarrezko egoera baten ondorioz.

Emakumea hiltzen dutenean tartean sexu erasoak izan dela.

#### **1) Arbuioa eta biktimari erakundeen laguntza erakusteko prozedura, gizarte inpaktu handia duten oso kasu larrietan.**

Egin beharreko pauso nagusiak honakoak dira:

a) Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak dakienean emakume bat hila dela, heriotza hori etxeko tratu txarrezko egoera baten ondorioa izan dela edo tartean sexu erasoak izan dela uste izateko adina azterna badela irizten badiu, berehala jarriko da harremanetan Jarraipen Batzordeko buruarekin. Akordioaren parte den beste edozein erakundek ere Jarraipen Batzordeko buruarengana jo ahal izango du, prozedura abian jarrarazteko moduko heriotza bat gertatu dela jakin orduko. Horrelakoetan, batzordeburua Segurtasun Sailarekin jarriko da harremanetan, prozedurak Aurrera segitu behar duen zehaztearren.

b) Gertaerak egiaztatu ondoren, Jarraipen Batzordeko buruak, ahalik eta lasterren, biktima erroldatuta dagoen herriko udalari emango dio aditzera eta, hala dagokionean, baita gertaerak izan diren herriko udalari ere, Batzordean partaide diren beste erakunde guztiei bezalaxe.

c) Biktima erroldatuta dagoen herriko udalak Osoko Bilkura deituko du, arbuioa eta familiari babesa erakusteko adierazpen instituzionala onartuko du, eta herritarrak deituko ditu, ahal den guztietan elkarte mugimenduarekiko kontsentsuaren bidetik, egoki irizten dien ekitaldietan (elkarretaratzea, manifestazioa...) parte har dezaten, biktimaren senideei informazioa emanek une oro. Ekitaldi horietan Eusko Jaurlaritzaren, dagokion foru aldundiaren, Legelarien Euskal Kontseiluaren eta dagokion mediku elkargoaren ordezkari bana izango da, gutxienez. Era berean, dauden gizarte baliabideetarako aukera emango die udalak biktimen senideei eta, egoki iritziz gero, herri akzioa ere erabiliko du.

d) Lehendakaritzatik, Emakunderen zuzendariaren bitartez eta, hala badagokio, Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko titularraren bitartez, biktimaren senideekin jarriko dira harremanetan, laguntza eta elkartasuna adieraztearren.

## **2) Biktimaren sendiari, biktima diren adin txikiko seme-alabei eta beste biktima batzuei zuzendutako erakunde laguntza koordinatzea**

Jarraipen Batzordeko buruak bultzatu egingo du dagokien erakundeen arteko koordinazioa, biktimaren sendiari eta inguruari, biktima diren adin txikiko seme-alabei eta, hala dagokionean, beste biktima batzuei erabateko laguntza eta dagozkien zerbitzuak eskaintzera begira.

## **3) Esku-hartzea edota biktimen arreta hobetzeko prozedura**

a) Kasuan zuzenen inplikaturako erakundeek osatutako taldeak aztertuko du kasu zehatza, Emakundeek koordinatuko duen prozesu batean. Anlisi horretan, kasuaren historia kronologikoa egiten saiatuko dira, emakumearen ibilbide osoa berreskuratuz edozein administrazio edo zerbitzu publikok emakumearen lehen berria duen unetik abiatuta, eta edozein administrazio edo zerbitzu publikorekin izan dituen hartu-eman guzti-guztiak jasota.

Ibilbide hori oso-osorik jasoko da, hobetu daitezkeen alderdiak finkatzeko lanaren oinarria izango den dokumentuan. Dokumentu hori Jarraipen Batzordeari aurkezten zaion azken txostenean jasoko da.

b) Jarraipen Batzordeak egoki iritziz gero, txostena berriro aztertu ahal izango du erakunde arteko teknikari taldeak, proposaturako hobekuntza-alderdiak berrikusi ahal izatearren.

Azkenean, Jarraipen Batzordeak bide emango dio txosten horri, eta kasuan ari diren administrazio edo zerbitzu publiko guztiei eskatuko die bertan eskatzen diren hobekuntzak gauzatzea.

### 7.3. III. Eranskina: Bestelako indarkeria matxisten ondorioz jarduteko prozedura.

Batzorde Teknikoak ebaluatuko du heriotza edota lesio larriak ondorio dituen edozein indarkeria matxista, erantzun publikorako aukera, bildutako informazioaren arabera.

Honako kasuetan jardungo da:

-. Azkoitian bertan pertsona bat hil dutela edo Azkoitian erroldatutako pertsona bat hil dutela jakiten denean eta indarkeria matxistaren kasu bat izan dela pentsatzeko zantzuak daudenean.

-. Erasotzailea Azkoitian bizi bada edo herriarekin lotura zuzena badu, ekintza Azkoitian bertan gertatu ez arren.

#### Jarraitu behar diren urratsak:

##### 1. Jendaurreko erantzuna:

- Egitateak egiaztatu ondoren, **Udalak komunikatu** bat idatziko du, zeina kasuaren inguruabar espezifikoetara egokituko den. **Bozeramaileen Batzordean** onartuko da, eta tokiko bitartekoen bidez zabalduko da; bestalde, Udalaren webean egongo da. Kasua heriotza denean, **Segimendu Batzordeko** presidentetzari ere bidaliko zaio, horren berri izan dezan.
- Udalak, indarkeria matxistaren aurkako politikak betez, **10 minutuko elkarretaratzea** deituko du, Bozeramaileen Batzordeak erabakitzen duen ordu eta egunean, lelo honen pean: «**Azkoitia: indarkeria matxistaren aurka**». Deialdia Udalaren webean argitaratuko da, **udaleko langileak** eta **herritarrak oro har** elkarretaratzean parte hartzera gonbidatzeko. Era berean, heriotza denean, Segimendu Batzordeko presidentetzari bidaliko zaio deialdia.
- **Biztanleriaren deialdia** egingo da, ahal den neurrian elkarrekin mugimenduarekin akordio batera helduz, horrela, honek ere parte-hartzeko beharrezkotzat jotzen diren jardueretan. Momentu oro biktimaren familiari egoeraren berri emango zaio.
- Prentsa-oharren bidez edo beste bide batzuen bidez emango zaie herritarrei elkarretaratze horren berri. Indarkeria arbuiatzeko beste jarduera batzuei babesa ematea erabakitzen bada, Udalaren konpromisoa komunikatuko da.

##### 2. Erasotako pertsonarekin edota bere inguruarekin harremanetan jartzea

Udaleko Gizarte Zerbitzuak kontaktuan jarriko dira erasotako pertsonarekin, familia edota inguruarekin erakundearen elkartasuna adierazteko eta udal ordezkariak euren beharrei erantzuteko daudela jakinarazteko.

#### **7.4. BALIABIDEAK:**

##### **Komunikazio Instituzionalaren Eredua:**

##### **ERAILKETA edo ERASO SEXISTAREN AURREAN, AZKOITIKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA (0 eta 1 eszenatokiak)**

Azkoitiko Udalak gure herrian gertatu den erailketa sexista arbuiagarriaren aurrean bere gaitzespenik irmoena adierazi nahi du eta laguntza osoa eskaini erasoak pairatu duen emakumeari eta bere ingurukoei. Halaber, Udalak elkartasuna eta hurbiltasuna helarazi nahi dizkie biktimari eta haren senideei, dituen baliabideak haien esku jarritz.

Azkoitiko Udalak jazoeraren berri izan eta informazioa baloratu eta egiaztatu ostean, Udalak ez ohiko bilkura deitu du eta Indarkeria Sexista kasuen aurrean Erantzun Publiko Instituzionala emateko Protokoloa aktibatu du biktimari eta bere ingurukoei eman beharreko arreta eta laguntza koordinatzeko eta herritarrei aukera emateko euren gaitzespena irmoki adierazteko.

Udalak hamar minutuko elkarretaratze isila deitu du, herritarrak parte hartzera gonbidatuz bai Udalak deitutako elkarretaratzean eta baita mugimendu feministak edo beste talderen batek antola ditzakeen gainerako arbuio ekintzetan ere.

Udalak ozen adierazi nahi du herri honek ez duela inolako giza eskubideen urraketarik onartzen. Emakumea ezberdin ikusteak, mendean hartzeak, gutxiesteak, duintasuna kentzeak, biktimari hitza eta arnasa ken dakizkiokeela pentsatzeak zorigaitza dakar beti.

Tamalez, aurrera goazen arren, gure gizartea ez da orain arte gai izan hain errotua dagoen arazoarekin akabatzeke. Indarkeria sexistak modu eta forma anitz ditu, isiltasunaren itzalpean ezkututzen direnak. Lanean jarraitu behar dugu indarkeria zantzurik txikiena errotik desagerrarazi arte.

Azkoitiko Udalak ez du atsedunik hartuko ahalegin horretan, gure bizikidetzaren demokratikoaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honi irtenbidea bilatu beharra daukagulako denon artean. Eraso oro gaitzestea, biktimari laguntasuna eta babesa ematea, prebentzio eta sentsibilizazio lanean jarraitzea, baliabideak bideratzea eta erasotzaileak egindakoa ordaintzea giltzarri dira egoerari buelta emateko. Udal honek ez du etsiko bide horretan.

Horregatik, herritarrak deitzen ditugu gaur arratsaldean egingo den elkarretaratzera, XXXetan, XXXXan.

## **Salaketa publikorako ekitaldirako deialdi eredua**

(1. eszenatokia eta 2. eszenatokia)

Azkoitiko Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du gure herrian berriki gertatutako **eraso edo erailketa** sexistaren aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die erasoak pairatu duen emakumeari eta bere ingurukoei. Azkoitiko Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarriko ditu erasotako erasotako **emakumearen edo familiaren** esku, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztia ere.

Azkoitiko Udalak gertaeraren berri izan duenetik eta **erasoari edo erailketari** buruzko informazioa egiaztatu, erkatu eta zabaldu ondoren, *Indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Protokoloa* aktibatu du informazioa baloratzeko eta, biktimari edo bere gertukoei egokia den arreta eman ahal izateko, den koordinazioa ziurtatzeko. Arreta egokia bideratuko dela ziurtatu eta informazioa baloratu eta gero, Azkoitiko Udalak hurrengo erabakiak hartu ditu: alde batetik, Udalaren jarrera irmoa adieraztea, argi eta garbi esateko ez ditugula inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten eraso makur hauek; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaintzea, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketa pairatzen duten emakumeen arazoa, baizik emakume guztiena.

Xede horrekin, Azkoitiko Udalak dei egiten die herritar guztiei ekitaldi horietan parte hartzera, indarkeria sexistaren aurka agertzea eta, indarkeria horren biktimei, bakarrik ez daudela adieraztea.

## 8. WEB-GUNE INTERESGARRIAK

- Zer egin indarkeria sexistaren aurrean?

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/berdintasuna/lan-ildoak/indarkeriasexista>

- Emakunde: emakumeen aurkako indarkeria

<http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/indarkeria/>

- Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak (Berdinsarea, EUDEL)

- Puntu lila

- Beldur Barik programa

<http://beldurbarik.org/eu/>

<http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/lila-puntu/http://www.eu-del.eus/eu/archivos/libro/emakumeenaurkakoindarkeriagomendioak.pdf>